

KOSTUEN EGITURA:

1. Hasierako garapen gastuak

Aplikazioa edo webgunea sortzeko profesional bat kontratatuko da, gutxi gorabeherako kostua: 7.000 €. Gastu horrek diseinua, garapena, adimen artifizialaren integrazioa eta abiaraztea barne hartzen ditu. Gainera, 2.000 € erabiliko dira sozietate mugatu gisa inskribatzeko eta legezko izapideetarako. Irudi korporatibo bat sortzeko, hala nola logotipoa eta ikusizko identitatea, 500 € aurreikusi dira.

2. Mantentze eta funtzionamendu gastuak

Proiektua coworking bulego batean garatuko eta mantenduko da, hileko 300 €-ko alokairuarekin. Espazio honek aplikazioaren mantentze-lanak eta publizitate kanpainak kudeatzeko aukera emango du. Aplikazioaren biltegitratze eta ostatatze zerbitzarien kostuak hilean 100 € izango dira. Beste funtzionamendu gastuak teknologia tresnak eta beharrezko harpidetzak izango dira, eta horiek 100 €/hil ingurukoak izango dira.

3. Hasierako marketin estrategia

3.000 € erabiliko dira sare sozialetan eta tokiko ile-apaindegiekin hitzarmen bidezko hasierako promoziorako. Ekintza hauen helburua erabiltzaileak erakartzea izango da. Gainera, 500 € aurreikusi dira material promoziorako. Helburua aplikazioaren ikusgarritasuna handitzea eta erabiltzaileen onarpena sustatzea da, bai doako bertsioan, bai Premium bertsioan.